

ZENBAT BURU
Aintzane Larrea

ERREPORTAJEA
Nolako jabea
halako txakurra

UDALETXETIK
Sigma auzoko
etxebizitzak
berritzeko
diru laguntzak

GEHIGARRIA
KiliBARREN

BERBETAN
Luis Mari Zubiaurre
enpresarioa eta
musikoa

KIROLA
Pagoaga-Elgoibar
eskubaloi taldea
Euskadiko
txapeldun

KULTURA
Kultur Errotaren
6. emanaldia

RREN

1999ko martxoaren 26a
VII. urtea - 272. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



11. KORRIKA Euskararen testigua Elgoibarren

"1+1=11 zu eta ni euskaraz" Korrikaren lema

UDABERRI JAIA

Ma_rhocrut 216tit, Ictv-uviboAct

17:30 Plaza Handian elkartu. JOLASAK

20:30 AFARIA (bakoitzak berea ekarri beharko du),

21:00 Trikitilariekin DANTZALDIA

22:00 Amaiera

Antolatzalea:
IgoilDarico Izarrako
AtXUbaaMalka b. I.



Laguntzaleak:
Elgoibarko udala
Eusko Jaurlaritza



Harpidetza

Hamaikai Litera

Hamaika Litera aldizkariaren

estreinako zenbakia buzoi guztietan banatu zen

BARREN astekariarekin batera. Hala ere, hurrengo

zenbakitik aurrera, harpidedunei bakarrik bidaliko

zaie. **Harpidetza doan** izango da eta

horretarako, ELGOIBARKO IZARRARA

edo BARRENERA jo edo telefonoz

deitu (943 74 16 26/74 41 12).



Elgoibarko Izarra K.E. Elgoibarko Udala



AINTZANE LARREA

Atal hau ez da RARREn editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-bandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakaan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Egun on!

Ez dira sekula errazak izan jendearen arteko harremanak, baina askotan pentsatu izan dut eguneroko bizimoduaren zenbait detaile aldatuz gero, bestelakoak izango liratekeela.

Makina bat aldiz heldu izan naiz etxera kaletik edo zereginen batetik bueltan haserre edo zertxobait etsita, eta motiboa norbaiten jokabide desitxurosoa edo edukazio falta izan da, besteekiko begirune eza, alegia.

Badira jokabide desegoki honen zenbait adibide, eta ez dakit nirekin bat etorriko zaiten ala ez, edo akaso nork bere zerrendatxoa egingo du. Baina ni nirea azaltzen saiatuko naiz.

Ez zait edukazio onekoa iruditzen baten batekin eikartu eta 'egunon', 'arratsaldeon', edo sikira 'eup' ez esatea. 'Egunon' esan eta inork erantzuten ez duenean hasten zaizu eguna okertzen.

Kalera irten eta ezagunen batek ezikusiarrena egiten duenean, hau da, agurtzera zoazela beste aldera begiratzen badu, sentitzen duzun inpotentzia eta geratzen zaizun tonto aurpegia demasekoa izaten da.

Orain modan dauden eguzkitarako betauñekoekin ere egoera deserosoan sentitu izan naiz san itan, ez baita batere erosoak begiak estalita edo ezkutuan dituen batekin hitzegitea.

Dena den, badira beste maila bateko jokabide arbuigarriak ere, esaterako, lehiatila baten atzeko langilea 'oso lanpetuta' ikustea,

bururik altxatzen ez duela bere zain dagoen egundoko jende ilarari kasorik egin gabe. Edo eta dendan erosteko zain zaudela aurrea hartzen saiatzen den gizon edo emakumearena.

Ez al da, bada, gaitzestekoa adibidez, kontenedorerik ez dagoen herrietan (nirean esate baterako) zarama ordutegi jakinetatik kanpo botatzea, edo are okerrago, Elgoibarren maiz ikusten dena, zarama ibaira botatzea?

Hiri handietan trafiko arazoak ere noiznahi sortzen dira, eta errepidean edo bolantean goazela, makina bat aldiz irteten gara geure onetik zenbait gidariren jokabide desitxurosoaren.

Kalean trankil-trankil edo presaka zoaztela, ez al zaizue txakur-kaka zapaltzea suertatu? Ba niri bai, eta a zer nolako amonua! Txakur jabeek txakurrak eta ingurua zaintzen jakin beharko luke, besteok ez baita ukagu txakur-kakarik zertan zapaldu.


Aurki, eguraldi ona hasteaz batera, ohi bezala, mendiak eta hondartzak zaborrez beteta ikusteko aukera izango dugulakoan nago, zoritxarrez.

Egunero gertatzen diren gorabeherak izaten dira, eta nahiz eta eguna animoso hasi, horrelako jokabideek piskanaka piskanaka geure onetik ateratzen gaituzte. Izan ezazue, bada, egun ona eta lasaia, eta ea auzoko lagun edo ezagun horrek 'egunon' esaten dizuen edota txakur-kakarik zapaltzen ez duzen!

Zuzenketa: Amaia Urzelai lankideak zuzenketa bat egiteko eskatu digu duela bi aste argitaratu zuen idatzian esaldi bat oker zegoelako. Hona hemen esaldi zuzena: "Egunkariek eta komunikabideek kontaktzen EZ dutena ez da existitzen".

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

▪ 943 74 41 12

Publizitatea:

943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E.maila: barren@topagunea.ialgi.com

ARGITARAT7_AILEA Elgoibarko Izarra

LACUNTAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILLEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIDA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M, Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin OorWnguez,

JOR1Eugi, Juanito Gorostiza,

Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Maritxu Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Iffigo Otaño,

Andoni Segundo, Jon Pell Uriguen,

iban Urizar, Amaia Urzeiai,

Maite Lourdes Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga


INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria,*



*fundazioa
fundaçion.*

1DANOBAT

GOITI
GRUPO DANOBAT

BARRENen oharra:

Aste Santuko oporrak
direla-eta, apirilaren 2an ez
dugu BARREN kaleratuko.
Hurrengo zenbakia apirilaren
9an, ostirala, aurkituko duzue
zuen etxeko buzoietan.
Ondo pasa oporrak.

Mendaroko Plataforma Aktiboa

Clizartean sortzen diren gertaerei erantzut eko nahiak sortu du Mendaroko Plataforma Aktiboa. Plataforma hau interes askotako pertsonaz osaturik dago, baina beti ere gertaera horiekiko sentsibilizazioak elkartzen gaitu.

Plataforma honen helburu nagusia Mendaroko herria pasibatetik esnatzea da, gizarteko kezken aurrean inplikatur eta sentsibilizatuz.

Talde hau irekia egongo da parte hartu nahi duen edozein personarentzat. Ekintza konkretuetan deialdiak egingo dira.

Plataformak, urtean zehar gertatzen diren kezka sozialen arabera antolatuko ditu ekintzak, balorazio baten bidez. Beraz, ez daukagu plangintza zehatzik.

Mendaroko Plataforma aktiboak (M.P.A.) orain arte antolatu dituen ekintzak honako hauek izan dira: "Gara" egunkariaren aldeko txozna, Talo ikastaroa, "Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean egin zen ekitaldia eta Emakume Langilearen eguna zela-eta egindako ekintzak.

Mendaroko Plataforma Aktiboa

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikaluta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu dalu hauek janzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.



• Pedro Muguruzako, Artetxe eta bligez de Karkizano kaleetako auzokideen izenean honako kexa hau iritsi da erredakziora: "aspaldi honetan arratoiak izugarri ugarritu dira gure auzoan. Urruzunoko etxebizitzak egiteko obrak hasi dituztenetik batez ere igarri dugu. Usetxe inguruko txabolak eta arbolak kendu dituzte eta auzoa arratoiz betetzen hasi zaigu. Gasa etxebizitzetara

eramateko tuboetatik igo-tzen eta etxe barrura sartzen dira. Ez pentsa gainera txikiak direnik arratoiak. Badira untxiaren neurrikoak. Nazkagarria da eta gainera beldurrez gaude. Arratoiei aurre egin arren, ez dira beldurtzen, ez dute ihes egiten. Udaletxera jo dugu eta badute egoeraren berri. Mese-dez, lehenbailehen zerbait egiteko eskatu nahi dugu, arazoa larria baita".



V211©111



• Jubilatutako bat etorri zaigu San Bartolome elizaren aurrean zeuden kontenedoreak lekuz aldatu dituztela-eta, honako txalo hau argitaratzeko: "Gure berriak duen eraikuntzarik eder eta esanguratsuenaren aurrean zeuden kontenedoreak eta asko itsusitzen zuten lekuaren edertasuna. Azken

sei hilabeteotan gogor saiatu naiz Udaleko arduradunekin hitz egiten eta kontenedoreak lekuz aldatu zitzaizkien eskatzen. Azkenean San Inazio katera aldatu dituzte kontenedoreak. Nire eskariari erantzun dionela ikusteak poza eman dit. Horregatik Udala txalotu nahi nuke.

BA1, ESAN?



Aitor Arakistain

Artetxeako Bizilagunen Batzordeko kidea

Duela hilebete inguru hasi zituzten Urruzuno Proiektuko obrak. Eraikuntza lanekin konforme ez dauden zenbait herritarrek proiektuaren aurkako pankartak jarri dituzte Artetxen. Gai honi buruz eztabaidatzeko aste honetan bertan auzotarrek bilera egin dute. Honako hau ez da izan elkartu diren estreinako aldia. Beraz, Urruzuno Proiektuaren inguruan duten jarrera azaltzeko eskatu diogu Artetxeako Bizilagunen Batzordeko kidea den Aitor Arakistaini.

- Auzotarrok ikerketarik ez dela egin diozue.
- Gure ustez obra "faraoniko" bat da. Orain arte Udala ez da sekula Artetxez arduratu eta proiektua egiterako orduan akordatu da gurekin. Elgoibarren ez da ikerketarik egin zenbat etxe huts eta zer behar dauden jakiteko. Arazoa ez da etxebizitza falta, hauen salneurri garestia baizik. Beraz, us-te dugu, babes ofizialeko etxeak "tranpa" gisa saltzen ari direla. Honekin ez dugu esan nahi etxe hauen aurka gaudenik, oro har proiektuaren aurka gaudela baizik.

Udalak zer jarrera erakutsi du kexen aurrean?

Alderdi politiko guztiei gurekin biltzeko gonbidapena luzatu *genien*. Baina taldeko kideekin hitz egin dutenak HB, PP eta IU baino ez dira izan. Alkatearekin ere hitz egin genuen eta garbi utzi zigun proiektuak aurrera egingo zuela. Bestalde, PSOE eta EA alderdietako kideek ez dute gurekin egoteko interesik azaldu. Hasieran, HB izan ezik, alderdi guztiek proiektuaren aldeko jarrera erakutsi zuten. Baina gurekin egon ostean, PP eta IU abstenitu egin dira. Informazioa transparentzia gutxiarekin eman digute.


- Proiektu honek zer kalte eta zer onura ekarriko dizkio auzoari?

- Auzoko gehiengo batek uste du proiektua kaerako baino ez dela izango. Artetxe, Elgoibarrek daukan irteeretakoa bat da, berdeguneak daude eta jendea pasiatzera joaten da. Bertan errepidea egiteko asmoa daukate eta portaletik irten orduko autoak izango genituzke aurrean. Proiektu honekin dena bertan behera geldituko da eta gure bizitza kalitatea ere asko jaitsiko litzateke. Proiektuak aurrera eginez gero, topatuko genioke onuraren bat, esaterako, bikote gazte askok etxebizitza izango lukeela. Baina hasieratik proiektuaren aurkako jarrera daukagu.



I. URTEURRENA

1998ko apirilaren 4an, 75 urte zituela hil zen
MANIELA MATAMUÑO Zen oroimenez
IIRTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 27, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Dogabea,



Agustin Alonsecano

Komunikabide eta herritar askoren ahotan dabil txakur arraza arriskutsuen inguruko eztabaida. Arraza jakin batzuetako txakurrek, Pitt-Bull, Dogo argentinar, Rottweiler eta antzerakoek pertsoneri egin dizkieten erasoak gaurkotasun handiko albistea dira. Eusko Legebiltzarreko talde politikoek ere, txakur arraza arriskutsuak kontrolatuko dituen araudia egiteko eskatu diote Jaurlaritzari. Arraza hauetako txakurrak dituzten elgoibanarrak bilatu ditugu eta euren esperientzia eta ikuspuntua azal diezaguten ekarri ditugu gure artera. Agustin Alonsok eta David Vargasek Rottweiler arrazako txakurrak dituzte eta eurekin hitz egin ondoren, arazoa, txakurrak hezitzeko ardura duen jabearengan dagoela adierazi digute. Gertatzen ari dena azaltzeko, "nolako jabea halako txakurra" esaera izan da biek aipatu digutena.

Agustinek 4 urteko Rottweillerra du. Betidanik eduki ditu txakurak eta duela 5 urte eixen zaintzeko beste txakur bat ekartzea erabaki zuen. "Orain dela 5 urte horrelako txakur gibd ikusten zian eta egokixa eta politxa iruditu jatalako ekarri naban". Txakurren erasoak gai serioa dela uste du Agustinek, baina daukan garrantzia baino gehiago ez zaiola eman behar aipatu digu, "gauza penagarriagoak eta garrantzitsuagoak egunero gertatzen diaz, baina hoietaz ez dau inork berba itxen". Azken aldian telebistan eta beste komunikabideetan enfzun dituen albistek asko harritu dutela esan digu, "horren arriskutsua dala esaten daben txakurra etxian dakat, baina niri inoiz ez dit arazorik sortu, beste edozein txakur bezelakua da".

GIZONAREN LAGUNIK ONENA

Agustinen hitzetan, "orain arte gizonaren lagun onena moduan ezagutu dou txakurra eta hala dala esateko arrazoiak daude. Orain, ordea, hori ere zalantzan jarri dogu. Nik argi dakat norberak erakusten diona ikasten dabala txakurrak, horretan pertsonen modukuak diaz eta erasuen eranizukizuna jabe arduragabiek da-

ke. Azken batian, ume batekin konparau leikez txakurrak eta ikusten dabena arabera erreakzionauko dabe". leku txiki eta desegoki batean bizi badira eta portaera txarrak erakusten bazaizkie txakurrak estresatu egin dartzeko eta arazoak sortu. "Askotan esaten dan esaeria da '**nolako jabea...**', baina egixa biribila da kasu honetan. Azken finian, bi hankakuak lau hankako txakurrak baino arriskitsuagoak gera askotan".



Agustin eta 17ko 70 kiloko Rottweillerra.

David

(Nora eta Elur)

Elgoibartar honek Rottweiler arrazako bi txakur ditu, 45 kilotik gora pisatzen duten Nora eta Elur ize-neko txakurrak, alegia. Indar eta pisu handiko txakurrak dira eta Davidek ahaleginak egin behar ditu berak nahi duen tokira eramateko. Askotan txakurrak dira David nahi duten tokira dararamatenak. Davidek azaldu digunez, zaintzarako bereziki sortua izan zen txakur arraza alemaniarra da Rottweilerra. Orain dela bi urtetik dauzka txa-



Nora haurduñ dago ettr David Vargasek meak emateko eta saitzeko astria du.


weilerra izugarri gustatu zitzaidanez, ez nuen birritan pentsatu beharrik izan". Txakurra erosi zuenean, inork ez zion txakur hauei buruzko inolako aholkurik eman. Daviden ustez, "txakurrak nori saltzen zaizkion gehiago zaindu beharko litzateke eta aholku gehiago eman. Horrelako txakurrak hezitzeak erresponstabilitate handia eskatzen du eta denak ez daude prestatuta. Izan ere, asmo ilunak eta ezkutukoak dituztenek oso erraz eskura ditzakete txakurrok, horixe da Skin Head delakoena kasua". Txakurren erasoak,

jaso duten heziketarekin zuzenki lotuta daudela sinesturik **dago**, "jende askok ingurukoak beldurtzeko erabiltzen ditu txakurrak edo arazo pertsanalak eta agresibitatea txakurrei **pasa** tzen dizkiete. Beste txakurren aurka borrokatzera behartzen **dituzte** eurenak indartsuenak direla ikusita harro sentitzen baitira". Txakur arraza bat desagertzea **baino** zentzudunagoa iruditzen zaio Davidi ugazabak eta hezitzaileak kontrolatuko dituen legedia eta errolda egitea.

Pisu **batean** edukitzeko moduko txakurrak ez direla pentsatzen du, "nireak lantegi batean ditut eta egunean 3

diz aterata nahikoa izaten da, pisu handia dute eta azkar nekatzen dira. Kanean beti eramaten ditut lotuta eta orain arte ez dut inoiz arazorik izan txakurrekin. Dena den, txakur arrakatsuak modan jarri duten gaia denez, mesfidantza gehiago nabari dut jendearengan".

kurak, "baserri bat zaintzen ari zen Rottweier bat izan zen ikusi nuen fehe-na. Ikusi ninduean gainera salto egin zidan, baina ez zidan ezer egin. Oso ondo hezitako txakurra iruditu zitzaidan eta batez ere oso noblea zela ikus-teak erakarri ninduen. Aspalditik neukan txakur bat izateko asmoa eta Rott-



Jon Manoa

himm.1g.in,rd

Adimen ititziaren bila Jon Arancr veterinarioarengana jo dugu.

Jonek azaldu digunez, "ez dago berez hiltzailea den animalia arrazarik, hau da, berezko inpultso hiltzaileak dituen animalia arrazarik. Edozein txakur izan daiteke arrisksua horretarako hezitzen badugu".

Txakurren erasuak gertatzeko zenbait faktorek bat egin behar dutela esan digu, "faktore genetikoeak, beziketak, faktore hormonalek eta faktore meteorologikoeak, alegia. Benetan arrisksua dena ez da txakurra; potentzialki txakurra agresiboa izatea eta jabe arduragabea izatea baizik. Jabe askok euren traumak eta debilitadeak txakurren bidez kaleratzen dituzte, tresna moduan erabiltzen dituzte".

Txakur hauek oso indartsuak direnez, erasoak egon direnean kalte izugarriak egin dituzte, "ikusgarritasun horrek komunikabideen arreta bereganatu du eta erlatiboki gutxi izan diren erasoei ohiartzun handiegia eman zaie".

Gaizki heziz gero, kalte handiak eragin ditzaketenez, garrantzi handia du heziketaren beharraz ohartzeak. Izan ere, Pit-Bull, Rottweiler eta antzeko arrazak helburu jakin batekin gizonak sortutakoak dira, "zaintzarako, polizia txakurrak izateko... Txakur arraza gogorrenak nahastuz sortutako arrazak dira. Beste txakurrak menperatzeko sena dute eta gaizki hezitako txakurrak pertsonak ere azpian eduki nahi ditu".

Jonen ustez, txakur arrisksuak buntzko araudiak ez luke arazua susta-itik konponduko. Kontzientziazioan eta informazioan dago gakoa. "Funtsezkoena, esku artean zer daukagun jakitea da eta txakurrari bumzko informazioa edukitzea."

Eragiten al dizu udaberriak



ISABEL GARCIA
55 urte, etxeoandrea

Bai, begiak handituta izaten ditut eta malkoak ateratzen zaizkit. Beste urtaroretan ez dut ezer igartzen baina udaberria heltzearekin polenak kalte egiten dit.



ANTHON AZPIAZU
42 urte, elektrizista

Normalian ez dot ezer anarorik somatzen. Udaberrixa izan edo udazkena izan, nerretzat igual samar da. Ixa enterau ere ez naiz in udaberrixa etorri danikan.



ROSA M SIERRA
29 urte, etxeoandrea

Bai asko. Negua oso ongi pasa dut, eta udaberria heldu denean izugarrizko katarroa harrapatu dut. Gainera, urduriago nago eta alde batetik bestera korrika ibiltzen naiz.



J. MANUEL ARANBERRI
52 urte, langabetua

Ez, ez dut ezer berezirik igarri. Badirudi jendeari eragiten diola baina nik ez dut aldaketarik izan. Agian zertxobait alaiago nago, baina ez dakit urtaro aldaketarengatik den.



MARI TERE GALOOS
63 urte, etxeoandrea

Bai. Nik alerjia eukitzen dot, begiak gorritzen jataz eta musua ifixi. Horretan bakarrik igartzen dot, bestela, nahiz eta udaberrixa ailegau, animoz berdina naio.



ANTONIO MIGUEZ
59 urte, aurre-jubilatua

Ez dut ezer igartzen. Eguraldia hobea izaten denez, kalera irteteko eta kanpoan ibiltzeko gogo gehiago edukitzen dugu. Baina bestela, ez dit udaberriak gehiegi eragiten.

- Goian bego -



**Teodora Larreategi
Zendoia**

1999ko otsailaren 26an hil zen
79 urte zituela.

Benetako euskaldun

jatorren kidea

beti erabili duzu

nekezko bidea

zuk ondo bete duzu

euskaldunen legea



EAko alderdikideak

Osasunean adituak

GAIA:

Argaltzen laguntzen duen pastila

Roche laborategi suitzarrak loditasunaren aurkako medikamentu berria kaleratu du. `Xenical' izenarekin saIduko dira eta 84 kapsulako kaxa bakoitzak 16.000 pezeta balioko ditu. Ezingo da medikamentu hau errezetarik gabe eskuratu eta Seguritate Sozialak ez du diru laguntzarik emango. Loditasun arazo serioak dituzten pertsonentzat pentsatuta dago `Xenical', koipe gehiegi dutenentzat, alegia. Sendagai berri honen helburua ez da elikadura txarren ondorioz hartutako kiloak kentzea. Pastilak hartzearekin ez da nahikoa izango. Eragina izateko, kaloria gutxiko dietak eta ariketa fisikoa egin behar dira. Hau da, pastila hauek ez dira loditasunaren aurkako miraria. Gure organismoak %30 koipe gutxiago hartuko du, hainbat elementutan desegiten baitu koipea. Dena den, `Xenical' hartzeak zenbait efektu kaltegarri sortarazten ditu, besteak beste, beherakoak, haizeak, tripako minak... Ez dira osasunarentzat efektu oso kaltegarriak, baina bai deserosoak. Sendagaia hartzen den bitartean aipaturiko efektuak gerta ez daitezten, koipe gutxi dituzten janariak hartzean dago gakoa. Kalkulatzen dutenez, galdutako pisuaren %60 dietaren eraginez izaten da. Beraz, `Xenical'-i esker kilo bat kentzeko 600.000 pta. gastatu behar direnez, beste bide merkeago batzuk aukeratzea egokiagoa izan daiteke.

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

..... P. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Diagnostikoak Irisaren eta Kinesiologiaren bidez)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Surya Belardenda (Voga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

didat honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENe 943 74 41 12ra

• Abialdian atio, osteguna, pasatu zen Elgoihartik

Abialdian, Jarrai gazte erakundearen 20. urteurreneko ekintza gorena, atzo, hilak 25, pasatu zen 17:30ean Elgoibartik. Deban ekitaldi nagusia egin ostean, arratsaldian Madalan egin zitzaion harrera, eta ondoren, Elgoibarko kaleetan manifestazioa egin zuten. Martxoaren 20an hasi zen *Abialdian* eta apirilaren 3an bukatuko da Donostian. Elgoibarko Jarraiko arduradunen esanetan, "gazteok independentziaren bidean bizitzeko aurkitzen ditugun zailtasunei aurre egiteko protesta era bat da *Abialdian*. Ibilaldia 100 lagun inguruk egingo dute eta azken egunetan 4.000 gazte bilduko gara. Donostiako Belodromoan ekitaldi zentrala egingo da eta gazte abertzaleak joatera animatu nahi ditugu".

• Nathalia Izar Bila saioko finalera pasatu da

Asteazkenean, hilak 24, Nathalia Mellado elgoibartarrak ETB leko Izar Bila saioaren finalerdietako saioan parte hartu zuen. Jakingo duzuen bezala, lehenengoa geratu zen 80 punturekin eta beraz, finalera pasatu da. Finala maiatzean izango da Bilboko Arriaga antzokian. Zortetik onena opa diogu Nathaliari azken saioan.

Hamaika elgoihartar Korrika


Etxepekoek omenaldi beroa jaso zuten herritarren aldetik



Etxepeko sortzaileei omenaldia Madalan.



Madidako ONCEko kabinan hartu zuten Etxepekoek testigua.



Felix Etxeberriak, Jose Gurrutzagak eta Jabier Zengotitak urtero egiten dute korrika (argazkian Felix). Aurten Kutxa izan dute babesle.

Korrikaren abestiak dion bezala, errepideetako Korrikari segika iritsi zen 11. Korrika Elgoibarrera. Iluntzeko 20:00ak aldera Azkarate gainean elgoibartarrok hartu genuen testigua. Ordu erdi beranduago, giro alaian egin zitzaion harrera Madalan. Korrika iritsi aurretik, Etxepe lantegiko sortzaileak euskararen alde egindako lanarengatik omendu zituzten. Ondoren, herritarrek kalean gora abiatu ziren Korrikarekin batera. Elgoibartarrek Saturixon esan zioten agur 11. Korrikari.

Bestalde, Elgoibarko AEK herriko euskaltzale guztiak animatu nahi ditu igandean, hilak 28, Donostian azken kilometroak egitera.

ELGOIBARKO ERRELEBOAK

- Hatzea Emakume Taldea
- Kimetz Elkartea
- LAB sindikatua
- Elgoibarko Izarra
- Kultur Elkartea
- IMH-Berri Eskola
- Herri Institutua
- Ikastola
- Etxepe
- Euskadiko Kutxa esponsorizatuta
- Felax Etxeberria eta Jose Gurrutzaga (urtero egiten dute korrika)
- Gazte Asanblada
- Morkaiko
- AEK euskaltegia
- Txardtakua Merkatari Elkartea
- Euskal Herritarrok
- Errotatxo

POL-POL

TABERNA

San Bartalame, 19 - Tel: 943 74 08 74



MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar


- * IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX



Fausto Morgadoren margo erakusketa inauguratu zuten joan den ostegunean

Fausto Morgado artista eibartarraren margo eta eskultura erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean hilaren 30era arte. Denera 20 margo eta 3 eskultura ikusi ahal izango dira. Gaztetan Elgoibarren bizi izandako margolari honek koadro figuratiboak eta hiperrealistak egiten ditu. Argazkian Fausto agertzen da bere lan batekin. Erakusketa egunero zabalik egongo da, astelehenetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Francisco Egea elgoibartarrak liburu bat kaleratu du



Paco Egea, "El Tiempo que Vivimos y el Reparto del Trabajo" liburuaren egilea.

Paid6s argialetxearen eskutik Francisco Egea elgoibartarrak lan bat kaleratu du. Eusko Jaurlaritzako Lan Kontseilaria izandakoak, Ram6n kluregui eta Javier de la Puertarekin batera idatzi du "El Tiempo que Vivimos y el Reparto del Trabajo" liburua. Denboraren arazoa ikuspuntu askotatik ematen digu ezagutzera, hasi ekonomikit eta filosofikora arte. Ekonomiaren denbora murriztea eta pertsona bera garatzea da liburu honek planteatzen duen ideia nagusia.

Gizonezkoak nagusi sukaldarilza ikastaroan

13 ikasle aritu dira Herri Eskolak antolatutako sukaldarilza ikastaroan. Argazkian emakumeak agertzen diren arren, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago izan dira. 10 lagu aritu dira guztira eta edadetuek ere parte hartu dute. Bi ordu-tako hiru saio egin dituzte Fernando Calvo sukaldariaren gidaritzapean. Bestek beste, arrain buding-a eta goxoak egiten ikasi dute. Atzo, hilak 25, izan zuten azken saioa eta ikasitakoa praktikan jarritz, afari goxoa dastatu zuten ikasle guztiek.



Jose Luis Gerestaren heriotzaren aurkako manifestazioa

Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta, Errenteriko Jose Luis Gerestaren heriotzarengatik protestatzeko manifestazioa egin zen astelehen gauean Elgoibarren. Manifestariak Estatu krimena izan dela salatzea zuten helburu. Manifestazioak herriko kaleak zeharkatu zituen Jose Luis Gerestaren aldeko eta PP eta PSOE alderdien aurkako oihuen artean.



JOSE, I;dw'd
(rxema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoak, etab. jartzen ditugu

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Moblia: 629 44 23 14

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan.

Pedro Muguruza, 2 Tel: 943 74 00 15

Sigma auzoko etxeak berritzeko diru laguntzak emango ditu Eusko Jaurlaritzak

Igogaituak, fatxadak edo teilatuak berritzeko izango dira laguntzak

• Uraren, zahorraren eta estolderiaren gaineko zergak

1999ko lehen beteko ur, zabor eta estolderiaren ordain agiriak helbideratu gabe dituztenek, martxoaren 22a eta apirilaren 31 bitartean egin dezakete ordainketa. Udaletxeko Dirubilketa bulegoan edo edozein banketxetan ordaindu daiteke goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00era bitartean. Aipaturiko epea pasatzen denean prozedura exekutiboa hasiko da eta erreziboa ordaindu gabe dutenei %20 gehiago kobratuko zaie. Udalak ordainketa errazteko ordainagiriak helbideratzea gomendatzen du.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde-Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak Sigmako etxeetan berrikuntzak egiteko laguntzak ematea erabaki du. Laguntza hauek orain artekoak baino handiagoak izango dira eta inguruak berritzeko erabiliko dituzte. Udalak eta DEBEGESAk Sigmako auzoan azterketa sozio-urbanistikoa egin ostean hartu zen diru laguntzak emateko erabakia. Ikerketa egiteko auzotan lan guntza ezinbestekoa izan da.

Sigmako bizilagunek modu askotako laguntzak jaso ahal izango dituzte. Obra beharrezkoa dela adieraziz gero, desgrabazio fiskalak lortuko dituzte. Bestalde, interes baxuko maileguak edo fondo galdurako dirulaguntzak ere jaso ditzakete. Diru laguntzak emateko kontuan hartuko dira berrikuntzaren ezaugarriak, obren kostua eta etxebizitzako jabearen diru sarrerak.

Beraz, igogailuak, teilatuak, fatxadak... berritu nahi dituztenek honako telefonora deitu beharko dute: 943 82 01 78. Bertan, Elgoibarko Udalera edo Debegesako bulegoetara joateko hitzordua jarriko diete eta han jasoko dute gai honi buruzko informazioa.



Subentzioak orain artekoak baino handiagoak izango dira.

Ikerketa berriak

Azken urteetan modu honetako zenbait ikerketa egin dira. Lehendabizikoa Sigma auzoan egin zuten, eta orain hiriguneko azterketa sozio-urbanistikoa egiten ari dira. Ikerketa hauen bidez, etxebizitzaren egoera eta bertan bizi diren pertsonen azterketa egiten dute. Honela, berrikuntzak beharrezkoak diren jakin ahal izango dute.

Ikerketetan emaitza egokiak lortu nahi badira ezinbestekoa da herritarren laguntza. Horregatik, Udalekoek, inkestazailerei lotsarik eta beldurrik gabe erantzuteko eskaria luzatu dute. Izan ere, emaitzek elgoibartarren ingurua eta bizi-baldintzak hobetzeko balioko dute.

ARRASATEKO ENPRESA BATEAN LAN EGITEKO

EUSKARA TEKNIKARIAK BEHAR DIRA


TEKNIKARIEN ZEREGINA:

Eigoibarko eta inguruko enpresetan euskararen normalizazioa sustatzea,

INTERESATUOK DEITU
ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartera
martxoaren 31 baino lehen.
Tel: 943 74 16 26 (Imanol)



dik



Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

t? 943 20 35 15
ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
• 20600 EIBAR



ilabete honetako argazkia **Joxepa Castañaresek** utzitakoa da. Berak esan digunez, erretratua 1948. urtekoa da. Aste Santua iritsita, inguru askotan prozesioak egiten dira eta mendarotarak ere ohitura horri eutsi zioten urte askoan. Bertan ikus daitekeenez, Aste Santuko prozesioa egiten ari di-

ra. Azpilgoetako elizan hasi eta herriko kaleetan beti egin ohi zen prozesioa. Dolorietako Amabidina daramate sorbaldan eta atzetik abesbatzak la cruntzen dio.

Argazkian aurreko aldean agenzendirenak **Manuel Iriondo** eta Hilario **Arriola** (t) dira.


Mendaroko Txirrindularien tropela

Mendarok betidanik eduki du txirrindularitzarekiko zaletasuna. Bertan izan da txirrindulari onik: orain dela urte asko Andres Lazarobasterrek nzakina bat lasterketatan parte hartu zuen

eta Giptrzkoako txapelduna izan zen. Gaur egun ere badira jubenil mailako lasterketetan aritzen diren txirrindulariak: Ander Zulaika, Jurdan Ezenarro, Ijaigv Lazkano eta Egoitz Mendikute. Gainera, Mendaron zaletasuna

badagoela erakusteko, duela urte batzuk Txirrindulari Elkartearen sortu zen. Ilerria bi gurpilen ginetik nola ikusten den jakin nahian, txirrindulari hantekin hizketan egon gara eta beraien bizipenak kontatu dizkigute.

Ander, Egoitz, Ifilgo eta Jurdan Mendaroko txirrindulari gazteak dira. Duela urte batzuk hasi ziren kirol honetan eta ilusio eta itxaropen handia dute hasi berri den denboraldirako. Aurten lehen urtea dute jubeniletan eta etapa berriaren aurrean baikor agertu dira. Aurten 40 lasterketa inguru korritzeko aukera izango dute, nahiz eta guztietara ez joan. 1999ko denboraldia martxoaren 7an hasi zuten eta urri aldera bukatuko da. Gipuzkoako Txapelketan parte hartzeko parada ere izango dute. Txirrindularitza mundua oso gogorra dela diote lau gazteek, "asko saiatu eta sakrifikatu behar da goi mailara iritsi nahi bada, hau da, dieta berezia egin, juergak albo batera utzi, gogoz entrenatu...". Lau txirrindulariokin hizketalditxo bana egin dugu, bizikleta gaineko sentsazioak nolakoak diren jakiteko.



ANDER ZULAIKA

enda-rotar honek 16 urte ditu eta duela 3 urte hasi zen txirrindularitza munduan, kadeteetako lehenengo urtean hain zuzen ere. Txikitatik eduki du bizikletarekiko zaletasuna eta horixe izan zen kirol honetan hasteko arrazoia. Anderrek ez du dieta berezirik egiten, baina bere ustez piska bat zaindu beharra dago. Denboraldia bukatu ondoren bi edo hiru kilo hartzea ona izaten da, baina beti ere neurrian. Denboraldiak aurrera egin ahala, lasterketak gero eta gogorragoak dira. Hasierako lasterketak 70-85 kilometro bitartekoak dira, erdi aldera 90-100 kilometro ingurukoak eta bukaerakoek 110-120 kilometro izaten dituzte. Anderren esanetan, "maila honetan bakoitzaren modalitatea zein den jakitea zaila da". Lehenengo sprint-a zen bere espezialitatea, baina orain mendian nahiko ondo moldatzen da. Itzuli luzeetan Ziiile du gustuko eta egun bakarreko lasterketetarako, berriz, Michele Bartoli. Doping-ari buruz galdetu diogunean, doping kontrola egitea ondo iruditzen zaiola esan digu, baina txirrindulariak horrela zapaltzea gehiegizkoa dela uste du.



JURDAN EZENARRO

Jurdan Ezenarro 17 urte ditu eta duela 4 urte hasi zen txirrindularitzan. Mundu honetan Indurainengatik hasi omen zen. Lasterketak gogorrak dira eta ongi entrenatu beharra dagoenez, urtariletik urrira bitartean egunero egiten dituzte entrenamenduak. Asko sakrifikatu arren, gora iristea oso zaila da Jurdanen ustez, hala ere, jarraitzeko asmoa dauka. Kadeteetatik jubeniletara ez du alde handirik nabaritu. Oraingoz, maila honetan bi lasterketatan baino ez du parte hartu eta gainera, txirrindulari asko ezagunak direnez, badakite nor dabilen ondo eta nor ez. Denboraldi hasieran zorte txarra izan dute baina taldean ongi konpontzen dira. Hala ere, batzuetan izaten dituzte beraien arteko "pikak". Jurdanen ustez goi mailako txirrindulariak ezin dira spaghettiekin bakarrik mantendu eta errekupeartzeko zerbait gehiago hartu behar dute. Beraz, doping-aren inguruan 1998ko Tourrean gertatu zena lotsagarria iruditu zitzaion. Bere txirrindularirik kuttunena Indurain izan da orain artean, baina erretiratu zenetik, Olano eta Pantani ditu gustuko.



Iñigo Iñigo

Iñigo, 16 urte ditu eta orain dela 4 urte hasi zen txirrindularitzan. Oso gustuko zuen kirol hau eta horrexegatik sartu zen mundu honetan. Colchon Laxy taldean dago, jubencil mailan. Taldea bost lagunek osatzen dute: 3 mendarotar, Itziarke bat eta berritxuar bat daude. Taldean giro ona daukate txikitatik ondo ezagutzen baitute elkar. Denboraldia prestatzen lau hilabete lehenago hasten dira. Gora heltzeko esperantza ez omen da sekula galdu behar baina bere ustez oso zaila da, "norberak bere burua asko zaindu behar du eta kualitate onak eduki". Indurain eta Olanoren parera iristea gustatuko tzaioke, baina bere txirrindulari gustukoena Zfille da. Iñigo maldan gora nahiko ondo moIdatzen da baina irabazi dituen lasterketetan urrutitik eraso eginda lortu du garaipena.



Egoitz Egoitz

Duela 4 urte hasi zen pedaleari eragiten, 16 urteko gazte hau. Lauretako Egoitz da Eibarko "Ciclos Ifilgo" taldean dabilen bakarra. Txikitatik izan du bizikletarekiko afizioa eta aurten Gipuzkoako Txapelketan parte hartzeko asmoa dauka. Entrenamenduak eguneroko kontua dira eta oso gogorra egiten da. "Lasterketa bat izan eta ondorengo bi egunetako entrenamenduak hankak soltatzeko izaten dira, 40 kilometro ingurukoak. Gainontzeko egunetan 90 kilometro egiten ditugu". Denboraldiaren osteko bi edo hiru asteetan hankak soltatu beharra izaten da eta ondoren, piskanaka bizikleta uzten joan behar da. Bere ustez, doping-aren arazoari publizitate gehiegi eman diote eta ondorioz, txirrindularitzaren irudia zikintzea lortu dute.

r7Vnorres r)azarogasier

Lehenengo lasterketa 12 urterekin egin zuen, artean federatu gabe zegoela. 15 urterekin federatu eta sei urtez jarraitu zuen txinindularitzan, hiru urte jubeniletan eta beste hiru afizionatuetan. Urte horietan "Educación y Descanso" taldean aritu zen. Hala ere, laster laga zuen bizikleta. Afizionatu mailako bigarren urtean bere medikua zen Salinasek, Anton Barrutia KASeko zuzendariarengana bidali zuen. Honek esan zion, egunean zortzi ordu lan egin eta gero, pertsona baten hanke ezin zutela behar bezala erantzun denboraldi osoan. Beraz, txirrindularitzaren eta lanaren arteko aukera egin behar, eta lana aukeratu

zuen. Andresek herritarrei eskerrak eman nahi dizkie, baina batez ere, "Pefia Torre"ko partaide izan zirenei, txirrindularitzarekiko zaletasuna bultzatzen lagundu zutelako. Bere azken lasterketa Elgoibarren egin zuen. Migel Mari Lasarekin ihesi zihoala, Azpilgoetako kalean gora hanketan kalanbreak sentitu, eta bertan behera utzi behar izan zuen. Andresek hiru txapelketa garrantzitsutan parte hartzeko aukera izan zuen:

Donostian, Bergaran eta Pasai Antxon; azken honetan garaipena lortu zuen. Beste lasterketa batzuetan ere nabarmendu zen. Espainian, bosgarren denborarik onena egitea lortu zuen. Bitxikeria gisa, Gipuzkoako Txapelketan gertatutakoa kontatu digu Andresek. Sprint-ean iritsi ziren helmugara eta erasoia jo

zuenen, blzikletako sillina apurtu zitzaion. Hala ere, Gipuzkoako txapeliduna izan zen 1965eko ekainaren 11n. Andresek gustukoan zuten txirrindularia Txomin Perurena zen, bere dotorezia eta elegantziarengatik. Oraingoan artean, berriz, Olano aipatu di



Andres Lazarobaster
Gipuzkoako txapeliduna izan zenean.

gu. Lehengo lasterketek oraingoan antzeko luzera izaten zuten, baina errepideen egoera oso txarra zen, zuloz beteta baitzeuden, eta horrek lasterketak asko gogortzen zituen. Gorengo mailara iristeko ilusioa izan zuen beti. Zoritxarrez, ez zuen zorterik izan. Hala ere, hainbat txirrindulari ezagunekin aritu zen, besteak beste, Gonzalez Linares, Galdos, Lasa eta Lazkano izan zituen errepideko lagun.

Zenofarioio 7xirriofulari Warlea

Mendaroko Txirrindulari Elkartea 1986ko ekainaren 26an sortu zen txirrindularitza atsegin zuen lagun talde baten eskutik. Mendaroko Kili-mon Elkartean afari bat antolatu ostean hasi zen martxan taldea. Hasieran, ez zuten inolako laguntzarik izan, baina antolatu dituzten lasterketetan beti izan dute Udalaren, tabernen, lantegien etab.en laguntza. Elkartearen helburu nagusia lasterketak antolatzea da, herrian txirrindularitza giroa sortzeko. Aurten ere jubencil mailako txirrindulari lasterketa antolatuko dute. Gaur egun, taldean 10 lagun daude. Hala ere, Mendaroko zaletuen kopurua hazten doa eta zikloturismoa gero eta jende gehiagok praktikatzen du. Beraz, inork Elkartekoekin harremanetan jarri nahiko balu Garagartza kaleko 27 zenbakiko egoitzara jo dezake edo telefono honetara deitu(943 75 60 86).

Aerobikeko eta gimnasia erritmikoko erakustaldia izango da bihar, hilak 27

Elgoibarko Ibai Gimnasioak, Mendaroko Udalaren laguntzaz aerobikeko eta gimnasia erritmikoko ikuskizuna antolatu du biharko, larunbata (hilak 27). Erakustaldia Goflati Pilotalekuan izango da arratsaldeko 17:00etan. 3 eta 18 urte bitarteko gaztetxoek gimnasia erritmikoa egingo dute. Aerobik erakustaldian, berriz, adin guztietako jendeak hartuko du parte. Eibarko, Elgoibarko eta Mendaroko taldeetako kideak izango dira.

Enpresen Gestioari buruzko ikastaroa egiten ari dira Mendaron

Okintza eta gozogintza labearen esplotazioa egiteko interesa dute nentzat Enpresen Gestioa delako ikastaroa antolatu du DEBEMEN elkarteak. Ikastaroan 8 emakume mendarotar ari dira parte hartzen. Joan zen astelehenean hasi zen eta apirilaren 9ra arte luzatuko da ikastaroa.

Bertsolaritza ikastaroa antolatu du Udalak

Udaleko Euskara Batzordeak bertsolaritza ikastaroa antolatu du larunbat goizee tarako. Ikastaroaren ardura German Meabebasterretxea bertsolari elgoibartarrak izango du. Maiatzaren 8an hasiko da eta ekainaren 5era arte luzatuko da ikastaroa. Guztira 10 ordu izango dira. Izena emateko epea apirilaren 12tik 30era bitartean izango da, Txirristaka eta Ornola tabernetan eta Udaltxean. Matrikula 1.000 pta.koa da eta gutxieneko ikasle kopurua 8 laguneko.

Azpilgoetako elizaren zaharberritze lanak hasi dituzte

Ziur ez daki-gun arren, Azpilgoeta auzoko .1a-sokundearen Amabirjinaren elizak 450 urte inauru ditu eta duela hamar bat urte monumento historiko-artistiko izendatu zuten. Azken aldian erakina nahiko egoe-ra txarrean zegoenez zaharberritzeari ekin diote. Gabonetan elizako erretaula berritu zuten eta orain, elizpearen aldaketari, barruko aldearen pintaketari eta argiteria hobetzeari ekin diote. Obraren aurrekontua 12 milioi pezetakoa da eta dirua finantza



iturri askotatik lortu da. 6 milioi Foru Aldundiko Ondare sailak eman ditu, 2 milioi Gipuzkoako Gotzaitegiak eta gainontzeko 4 milioiak Mendaroko jendearen artean batu dituzte. Obrak apirilaren erdialderako amaituta egotea espero dute.

Anduaga iarmazia herriko enparantzara aldatu dute

Azken aldian Mendaron izandako aldaketen eraginak somatzen ari dira piskanaka eta herriko enparantza ingurua auzo itxura hartzen ari da. Batetik, etxebizitzak betetzen ari dira, eta bestetik, merkataritza jar-

duera ere indartzen hasi da. Esate baterako, Anduaga Botikak Mendarozabalen zuen fannazia itxi eta berria irekiko du laster Herriko enparantzaren. Kutxa ere, bulego berria eraikitzeke obrekin hasia da dagoeneko.



46 urte dituen elgoibartar honek 'Gaindu' enpresan egiten du lan. Elgoibarko Eskola Profesionalean ikasi zuen lehenengo eta Eibarko Anneria Eskolan ondoren. Gero lanean hasi zen, eta gaur egun, enpresa horretako teknikaria da. Enpresako lan astunenekeak arintzeko bere ordu libreak nzusikara dedikatzen ditu. Elgoibarko Bandan klarinetea jotzen du.

LUIS M^a Zubiaurre

"Musika, zaletasuna baino gehiago da, azaldu ezin daitekeena"

Nola sartu zinen enpresa munduan?

- Garai hartan lan mundua nahiko motel zegoen. Ni 'Lanbi'n ari nintzen lanean eta 'Aeme' enpresa istear zegoen. Bertako langileek enpresa berri bat sortzeko ideia izan zuten. Teknikari bat behar zuten eta niri hara joateko proposamena luzatu zidaten. Ni animatu eta 'Gaindu'n hasi nintzen. Beraz, ilusio handiz sartu nintzen enpresa berri honetara. Enpresa batean hasteko beharrezkoa da ilusioa izatea. Baina bazkideekin ondo konpontzea ezinbestekoa da. Bi oinarri hauek bete ezean jai dago.

— Zein da zure eginkizuna enpresan?

'Gaindu'n makina espezialak egiten ditugu, batez ere, autoetara bideratutako makinaria. Tresna hauek mo-

torren montajerako erabiltzen dira. Nik proiektuak egiten ditut ordenagailuz. Lehen tauleroan egiten genituen baina gauzak aldatu egin dira. Hasieran izugarritzko txokea izan zen, eta programak eskasak zirenez, asko kostatzen zitzaigun. Baina piskanaka, ordenagailu programak hobetuz joan dira eta guk ere hartu diogu martxa.

— Profesionalki zerbait gelditzen al zaizu egin gabe?

46 urterekin topera iritsi naizela uste dut. Orain ez daukat hizkuntzak edo teknologia berriak ikasten hasteko asmorik. Dudanarekin nahikoa daukat. Gainera, eguneroko lanean gauza berriak ikasten ditugu, ez daukagu kanpora jo beharrik gehiago jakiteko.

— Musikoa ere bazara.

- Bai. Nire aita Elgoi-

barko Bandako zuzendaria izan zen eta berarekin ikasi nuen solfeo. Klarinetea jotzen, berriz, nire osabak, Felix Lodosok irakatsi zidan, Horrela hasi nintzen, eta gustuko nuenez, jarraitu egin nuen, eta gaur egun oraindik musika jotzen aritzen naiz.

— Elgoibarko Bandan jotzen duzu.

- Bai. Duela 33 urte hasi nintzen eta gaur egun ere bertan aritzen naiz. Niretzat musika zaletasuna baino gehiago da, azaldu ezin daitekeen zerbait. Entseuetara joatea ez da musika jotzea bakarrik, hango giroa nire bizitzarentzako osagarri bat da. Bandan jende gaztea dago eta baita nire adinekoak ere, baina guztiak kuadrilakoak bagina bezala moldatzen gara.

— Bateratu al daitezke lana eta musika?

- Nahiko justu, baina bietara iristea lortzen dut. Musika oso gustuko dudana gauza da, eta norberak nahi izanez gero, atizioarentzat ere gorde daitezke eguneko zatitxo bat. Ez diot denbora askorik eskaintzen, lanarengatik ezin dudalako, baina gustatuko tzaidake. Norberak nahi izatea da kontua. Nire inguruan anaia ere musikoa da, baina semeek ez dut uste afizio hau hartuko dutenik.

— Aurrera begira ba al daukazu proiektu berezirik?

- Dudanarekin jarraitzea da nire asmoa. Enpresa munduari dagokionean, 'Gaindu'n segituko dut ofizina teknikoaren arduradun. Bestalde, orain arte bezala, musikak nire bizitzaren osagarria izaten jarraituko duela espero dut.

EESTEK EVINA

"Mutil ona, arduratsua eta langilea da, baita musikoa ere." J. ANTONIO OSORO, Bandako zuzendaria.





osu An-
17ton Ba-
thola 42 ur-
teko elgoi-
bartarra da
eta duela 10
urte joan zen
Vigo hirira
(Ponteve-

3osut A vvi'ovt dra). Irutiean
Medikuntza
ikasketak

Badio!cs
amaitu, Bilboko Basurtoko ospita-
lean espezialitatea ikasi eta EHU-
ko Leioako kanpusean lanean ibili
ondoren, Vigotik lan eskaintza jaso
zuen. Beraz, lan kontuengatik,
emaztearekin, semearekin eta ama-
rekin batera joan zen Galizia alde-
ra. Josuk aipatu digunez, "bizileku
berrira ohitzeko arazo gehien amak
izan zituen. Ander, 11 urteko semea,
berriz, oso erraz integratu da. Semea
euskaraz hitz egiten zuela joan zen,
eta dagoeneko, ederki hitz egiten du
gailegoz". Elgoibarrera sarritan etorti
ohi da. "Udan, Gabonetan eta Aste
Santuan bisitarren bat egiten saiatzen
naiz. Lagunez, etxekoez eta Elgoibarko
giroaz asko gogoratzen naiz. Batez ere
txikiteoaren falta igartzen dut. Hemen
ere ibiltzen gara txikiteoan, baina giroa
ezberdina da. Txkitiak, gainera, katilu
moduko batzuetan hartzen dituzte
galiziarrek". Familiakoekin Vigoko
hondartzan, neguan zein udan, pasiarra
luzeak egitea oso gustuko du Josuk.
Elgoibarko berri izateko astero astero
BARREN irakurtzen dutela aipatu digu.

Vicente Sol Artozabal

(1so5-1991)



- 1905eko apirilaren 5ean jaio zen Eibarren. Bi anaia ziren familian, bera zaharrena. Eskola nazionatetan egin zimen ikasketak. Geroago 'Chanton' lantegian egin zuen lan. Gaztaroa futbolean eta esku pilotan jokatzuz pasa zuen.
- Pilotari profesionala izan zen. Partidu ospetsu bat jokaturakoa dugu, Irustarekin bikotea osatuz, 22 eta 16 galdu zuen Atano III, garai-ko pilotari onenaren aurka. Azken honek bikoterik gabe eta eskumako eskua bakarrik erabiliz jokatu zuen.
- 27 urte zituela Dominika Oria elgoibartarrekin ezkondu zen. Elgoibarren 'Lacha y Juaristi' lantokian egin zuen lan.
- 1936ko gerratean garai gogorak bizitzea tokatu zitzaion. Gerra frontera joan zen eta Laredoko, Santoñako eta Donostiako kartzelak barrutik ezagutzeko zoritxarra izan zuen. Alberiteko kontzentrazio zelaian denboraldi bat pasatzea ere tokatu zitzaion.
- Gerra ostean, Elgoibarrera itzuli eta lehenago lan egin zuen lantegian jarraitu zuen. Handik gutxira ordea, bi bazkide elgoibartarrekin batera, burdina errefilatzeko Intrade" izeneko lantegia sortu zuen Eibarren. Jubilatuta arte eduki zuen lantegia Vicentek.
- Ehizan eta arrantzan aritzea oso gustuko zuen. Arrantzan oso trebea zen, amasa hartu eta urazpian murgilduz, barboak eta antzerako arrainak harrapatzeko gaitasun berezia zuen.
- Juan Cruz Sol futbolari ohia, Valencia taldeko jokalaria izandakoa eta internazional ohia, Vicenteren semea da.
- Perretxikoak batzea, kartetan jokatzeta eta Astelenako frontoian pilota partiduak ikustea izugani atsegin zuen.
- Sozialista porrokatua eta finnilia girokoa zen. 1991ko martxoaren 20an hil zen 86 urterekin.

Juanito Gorostiza

VIAJES **D/W** 1313 DATA
31L31:10 EXPQESS
bidai agentziak
babestutako atala
Foruen Enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

HERRI-GAİN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

brfiiiano

San Franzisko, 12-14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

111#111111



A

ste honetako argazkia Miguel Ubiriak inguratu du. 1975ekoa da, eta bertan agertzen den laukotea inguruko herrietara makina bat bidaia egindakoa da. Miguel Ubiria txofer zutela ibiltzen ziren batera eta bestera.

Urkiolako San Antoniora uda sasoiari egin zuten irteera batean

ikus ditzakegu honakoan. Manga moztzean eta Urkiolako eliza aurrean agertzen direnak hauek dira ezkerretik hasita: **Miguel Ubiria, Eduardo Elorza (t), Karmel Ajuria (f)** eta **Imanol Ajuria (f)**.

Miguelek azaldu digunez, San Antoniori errezo eta kantu batzuk giro alaian abestu ondoren itzuli ziren etxera oso gustura.

PUB

4 ELGOIBAR
943 74 42 65

Cordon, Vilarchao, c.b.

IDEKORAZIOA

MOKETAK, KORT)10 BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

—San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

logoogo alle02 nooken os102 c) daall Ispdga[lo 7vageIlgIE zekID gaPazo zsil kEtil 91

Apirilean eta mabtzean beste hiru autonomia erkidegotako taldeen aurka jokatuko dute



Pagoaga Elgoibar. Igor Lizarralde entrenatzailea, Itzar Gerrikabeitia, Edurne Juaristi, Iraia Silva, Estitxu Perea, Nerea Lendinez, Maite Arenal, Itziar Leiaristi eta Ainhoa GonMiez. Makurtuta: Sare Gurrutzaga, Maria Bilbatua, Maite Uriarte, Anaira Ladrán, Julia Fernandez, Nere Aranberri, Ainhoa Uriarte, Amaia Polo, Begoña Merino eta Otiliana Apellaniz.



Unceta Elgoibar. Jose Peñaranda entrenatzailea, Leire Agirrebeña, Ibona Loiola, Anahi de la Cruz, Miren Beitia, Ane Garmendia, Erika Etxabe eta Ales Arrieta entrenatzailea. Makurtuta: Izaskun Sarriugarte, Lur Izagirre, Lorea Gabilondo, Estitxu Astigarraga, Maddalen Bergara eta Andrea Iriondo.


Pagoaga Elgoibar taldekoak Liga Txapelketa irabazi dute nesken kadete mailako Euskadiko Txapelketa. Lehen postu honi esker, Espainiako Txapelketako sektorea jokatzeko txartela irabazi dute. Euskadi osotik talde bakarrak zuen sektoreka banatzen den Txapelketa honetan jokatzeko aukera, eta Pagoaga Elgoibar izango da Euskadiko ordezkaria. Txapelketa honetan 4 autonomia erkidegotako taldeak arituko dira lehia maia-

tzetik aurrera. Bestalde, Unceta Elgoibar nesken jubenil mailako taldeak hirugarren postuan amaitu du Liga. Maila honetan 3 taldek dute Euskadi ordezkatu eta Espainiako Txapelketaren sektorea jokatzeko aukera. Beraz, apirilaren 16an, 17an eta 18an Katalunian jokatu den Txapelketan izango ditugu Uncetako neskek. Zortetik onena izan dezatela opa deigu eta ea hurrengo batean bi talde hauen garai-penen berri emateko aukerarik dugun.

KIROL ALBISTEAK

• Martin Domingezek Barakaldoko Duathloian hartu zuen parte

Martin Domingez, Urgazi Triathloi taldeko kidea, Barakaldoko Duathloian hartu zuen parte aurreko domekan. Denboraldiko lehen proba hau 'Sprine delako duathloia izan da. Esan digunez, "denboraldia hasi berria denez, oraindik ez nago formarik onenean eta proba motza izateak ez zidan mesederik egin". Lehen 30 sailkatuen artean arnaitzea lortu zuen.



ESK@LARTEKA KIR@LAK

AGENDA Martxoak 27 16. ardonaldia

ARETO FUTBOLA

E Benjamin mutilak

10:00 Pilar B- Ikastola A

10:30 Pilar A- Ikastola B

11:00 Ikastola C - Mendaro A

11:30 Herri Eskoia B- Herri Eskola A

• Benjamin neskek ■

12:00 Ikastola B Ikastola G

12:30 Ikastola A- Pilar A

SASKIBALOIA (Ikastolan)

Infantil neskek ■

A zelaia

9:00 Ikastola A - Insti

9:30 Ikastola E Ikastola D

10:30 Pilar B- Ikastola B

11:15 Pilar A- Ikastola G

Infantil mutilak

12:00 Pilar A- Pilar B

12:45 Ikastola - Insti

• Alebin mutilak ■

B zelaia

9:00 Herri Eskola - Pilar A

9:45 Ikastola A- Pilar B

10:30 Mendaro B- Ikastola B

11:15 Mendaro A- Ikastola G

• Alebin neskek ■

12:00 Ikastola B - Ikastola C

12:45 Ikastola A - Pilar A

Agingeheña-Egaña eta UPtubla-Agilpregomezkorita Izan Era Salillobentello PIlloTTa THapeaalake irabaileak Egaña 1. mailan eta Urtubia 2. mailan izan ziren pilotari onenak




Argazkian, partehartzatleak, Txapelketako antolatzaileak eta babesleak agertzen dira.

Sallobente Elkarteak Artazo pilotaria zenaren omene urtero antolatzen du eskuz binakako Txapelketa. Finalak Sallobenteko frontoian jokatu ziren San Jose Egunean, hilak 19. Lehen mailako finalean Agirrebeña eta Egaña osatutako bikoteak 22 eta 17 irabazi ziren Txillarreri eta Osorori. Kategoria honetan Egaña aukeratu zu-

ten pilotari onena. Bigarren mailako finalari dagokionez, Urtubia eta Agirregomezkorta 22 eta 16 nagusitu ziren Arrilagaren eta Kateiren aurka. Jokalari onenaren saria Urtubiarentzat izan zen. Jendez gainezka egon zen San Lorentzoko frontoia eta hurbildu ziren zaletuak lehia gogorra eta partidu orekatuak ikusteko parada izan zuten.

Josu Idiakezek eta Egoitz Morak zilarrezko dominak irabazi dituzte Espainiako Lutxa Libre Txapelketan

Josu Idiakezek zilarrezko domina irabazi zuen Espainiako Lutxa Libre Txapelketan 69 kiloz azpiko kategorian eta borroka grekoerromatarrean. Egoitz Morak ere zilarra eskuratu zuen, oraingoan Lutxa Libre Olinpikoan eta 85 kilotik beherako pisuan. Ibai Kirol Elkartetik 5 elgoibartar joan ziren Euskadiko selekzioarekin martxoak 11, 12 eta 13 bitartean Madrilen jokatu zen Espainiako Txapelketara. Lutxa Libre kirol berria da oraindik Ibaikoentzat, kirol hau praktikatzen hasi berriak dira eta esperientzia eza dela-eta, itxaropen handiegirik gabe abiatu ziren Madril aldera. Dena den, Iehiakortasun handia erakutsi zuten elgoibartarrek eta bi finalerara heltzea lortu zuten. Finalera heldu zi-



Eskuman, Josu Idiakez Lutxa Libreko borrokaldi batean.

ren aurkariak, ordea, iazko txapeldunak ziren eta borrokaldi orekatuak izan arren, urrezko dominak ihes egin ziren elgoibartarrei. Beste elgoibartarrei dagokienez, Xabi Gonzalez 5. postuan sailkatu zen eta Andoni Garcia eta Gorka Garate 6. eta 8. izan ziren hurrenez hurren.

41Y1 111 IZIA K

Futbola

Torrelavega 2 - Haundi 1
Elgoibar 1- Kilimon 0 (1. erreg.)
Ayerru 0 - Pedrusko 2 (2. erreg.)
Elgoibar 1- Pasajes 2 (1. jub.)
Hamabi Eguzki 3- Elgoibar 1 (Kad.)
Elgoibar 4 - Tolosa (Ird.)
Elgoibar 9 - Ostadar 0 (Neskak)

Areto Futbola

Zur Ta Lur Elg. 3- Moulinex 3
Zur Ta Lur Elg. 5- Opel Arregi 1

Eskubaloia

Oiarso 12 - Unceta Elg. 17 (Jub. nes.)
Oiarso 7 - Pagoaga Elg. 17 (Kad. nes.)
Unceta Elg. 23 - Muskiz 18 (Jub. nes.)
Pagoaga Elg. 22 - Muskiz 7 (Kad. nes.)

Futbitoa

Berrogei Duro 0 - Lojantzi 1 (1.maila)
Aide Globum 2- Sparlak Braga 4 (Auton.)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIKO jokalarri erregularrena 93/99	
JOKALARIA	PUNTUAK
1- Aitor Trebitro	32
2- Madina	29
3- Eneko	28
4- Txasio	25
5- tbon Muguruza	25
6- G. Lazarbaster	24
7- Iker Leonardo	22
8- Diaz	21
9- Caro	20
10- Beitia	18
11- Elkorro	15
12- Gurrutxaga	15
13- Igor	11
14- G. Leonardo	10
15- Loren	9
16- Portu	1

315_11.193_11

Futbola, M intxetan

Larunbata, 27
17:00 Haundi - Burgos
18:45 Pedrusko - Harnaika Bat (2. erreg.)
Igandea, 28
15:30 Elgoibar - Beti Gazte (Kad.)
17:15 Elgoibar - Dunboa (Neskak)



Elia: t'

Robert ImisStonisitit

Misterioa eta intriga

Seguraski Robert Louis Stevenson (Escozia, 1850 Samoa 1894) idaztearen Ianik ezagunen artean "Altxor uhartea" eta "Dr. Jekyll and Mr. Hide" daude. Horiatarik lehenengo euskaraz irakur daiteke (Ibaizabal) eta horrekin batera euskaraz ditugu, halaber, egile berberaren "Ba-Ilantrae-ko Premua" eta "Botilako deabrua" (*Elkarlanean*),

Elkarlanean argialetxearen Branka sailean horiei gehitzen zaien beste liburu bat irakurtzeko aukera dugu: "Suiziden elkarte". Hiru istoriotan banatuta dago eta osotasunean elaberri bat osatzen dute. Lehendabiziko istorioa "Krenazko pastelak banatzen zebilen gizona" izenburukoa da. Hasieratik bertatik istorio irudimentsua da. Present dago abenturarako joera, Stevenson-ek beste liburu sonatuetan landu zuena, bai itsasoari loturiko narrazioetan, nahiz beste batzuetan ere.

Bigarren kontakizunean ere, "Medikua eta jantzi-kutxa" izenburukoan, tentsioa duten pasarteek segida dute.

Liburuaren bi zatiak traurkurita, azkenengoan, *Zalgurdien abenturan*, argitze-ko dagoen istorioaren amaiera ezagutuko dugu.

Jon Eugi

Gurean Bai hitzarmenaren lehen faseak estimazio handia izan du

Entitateek lehen fasearen balorazio oso positiboa egin dute

Gurean Bai hitzarmeneko arduradunek lehen fasearen balorazioa aurkeztu zuten astelehenan, hilak 22, Kultur Etxean eman zuten prentsaurrekoan. Hitzarmeneko arduradunek plangintzak lehen hiru urteotan izan duen arrakasta nabamendu zuten. Balorazioa aurkeztzen izan ziren Thasio Garmendia (Elgoibarko Izarrako lehendakaria), Ana Santolaya (Udaleko Kultura zinegotzia) Abel Irizar (Hitzarmeneko teknikaria) eta Hitzarmeneko elkarte eta erakundeetako 4 ordezkari.

9li ko urtarrilean Elgoibarko 51 elkarte eta entitateek euren eguneroko funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko eta normalizatzeko konpromisoa hartu zuten. Proiektua martxan jarri zenetik hiru urte pasa ondoren, Iñasia Garmendia Elgoibarko Izarrako iehendakariaren hitzetan, "Hitzarmeneko 53 entitateak gustura daude proiektuarekin eta aurrerapausoak izan dira euren eguneroko funtzionamenduan euskara erabiltzerakoan". Ana Santolaya Kultura zinegotziak Udalaren izenean hitz egin zuen, "Udalak oso-osorik babestu du proiektu hau, eta emaitzak oso onak izan direla ikusirik, aurrerantzean ere gure laguntza eskaintzeko prest gaude". On-



Haizea E. T., Gestio Eskola, Eskubaloi Taldekoak eta elizako ordezkariak prentsaurrekoan izan ziren 53 entitateen izenean.


doren Abel Irizar teknikariak 3 urteotan egingo lan azalpenak eman zituen, "euskararen erabilera normalizatzeko asko falta bada ere, urrats sendoak eman ditugu, ezkutuko lan handia egin dugu eta euskararen erabilerari dagokionez, egoera oso larrian zeuden hiru sektoretan, Musika eta Dantza Eskolan, kirol arloan eta Eskola Kirolean hobekuntza nabarmenak izan dira *Gurean Bai* martxan jarri genuenetik". Prentsaurrea entitateek erakutsi duten ahalegina eta konpromisoa txalotuz bukatu zen.

Txalaparta eta jazza Kultur Errotan

Zapatuan, martxoak 27, izango da Kultur Etxeko sotoan

ihar, zapatua (hilak 27),

Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Kultur Errotaren 6. emanaldian Iñaki Salvadorrek, Jesus Artzek eta Kirikoketa taldeak parte hartuko dute. Pianoa eta txalaparta batzen dituen saioa eskainiko dute. Iñaki Salvadorren pianoarekin eta Kirikoketa taldea txalapartarekin, euskal musika tradizionalaren irakurketa librea egingo dute ikuskizun berezia eskainiz. Mai Gorostiaga antzezle tolosarrak, berriz, "Euskaldun berri baten bizipenak" monologoa antzeztuko du. Saioa Kuitur Etxeko Sotoan, gaueko 10:30ean hasiko da. 500 pezeta ordaindu beharko dira sarreran, baina



Iñaki al-vadorpianajole eta koppositorea.

kafea, pastak eta kopatxoa prezio horren barruan daude.

Maki Salvador pianojole eta konpositoreak eta Kirikoketa taldeak prestatu duten saioa bi musika unibertsoren

arteko kontzertua izango da, euskal musika eta Jazzaren arteko elkarrizketa bailitz baitago antolatua. Honez gain, Kirikoketa taldeko Jesus Artzek txalapartaren historiari eta bilakaerari buruzko azalpena emango du. Ez Dok Hamairu taldeko partaidea izandakoa da Artze eta txalaparta galtzeko zorian zegoenean, Usurbilen martxan jarri zituen txalaparta ikastaroen bidez, tradizio handiko mundu hau berreskuratzen saiatu zen.

Ki Salvadorri dagokionez, Jazz munduan asko ibilitakoa da, konpositore lanetan ere maiz aritutakoa dugu. Aipaturiko bi arlo hauetan hainbat sari irabazi



INTERESEKO TELEFONOM

OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak . . . 943 461111
Txanda hartzeko 943 743354
Planning-a ☎ 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria . . 943 743864
Mendaroko Ospedalea.. 943 032800
Odol Emaileak ☎943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
PESA (Eibar) . 902 10 12 10
Taxi geltokia ☎943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
Kultura Zerbitzua. . 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua ☎943741008
Udaletxea ☎943 741050
Udaltzaingoa.. ☎943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ☎943 741626
Kiroldegia ☎943 744415
Kontsumo Bulegoa ☎943 743088
Liburutegia ☎943 743525
Musika Eskola . . 943 742145
Mintxeta ☎943 744315
Parrokia ☎943 740842
Postetxea ☎943 741547
Gaztetxea ☎943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
Zaharren Biltokia ... 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . 943 74 21 41
HHI (EPA) ☎943 74 08 80
Herri Eskola ☎943 74 08 79
I.M.H. ☎943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre ☎943 74 02 67
Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80
Ikastola ☎943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco ☎943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Egin ☎943 10 84 21
Zazpiki irratia ☎943 74 34 74

1 osteguna

19:30-22:15 ZINEA
"Pateh Adams"

2 ostirala

19:30-22:15 ZINEA
"Pateh Adams"

3 larunbata

16:30 'PAYASOLANDIA',
IKUSKIZUNA
Herriko antzokian

19:30-22:15 ZINEA
"Pateh Adams"

4 igandea

16:30-19:30-22:15 ZINEA
"Pateh Adams"

5 astelehena

19:30-22:15 ZINEA
"Pateh Adams"

8 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"Velvet Goldmine"

9 ostirala

19:00 MARGO ERAKUSKETA
Egilea: Etery Prieto
Kultur Etxean
Apirilaren 23ra arte
22:15 ZINE KLUBA
"Velvet Goldmine"

28 igandea

9:20 KILIMON
BAILARARA
MENDI IRTEERA
Irteera: King Kongen
Antolatzailea: Herri
Eskolako Gurasoak

11:45 FILATELIA
ELKARTEKOEN
URTEKO BATZAR
OROKORRA
Merkatu Plazako egoitzan
Antolatzailea:
Elgoibarko Filatelia Elkarte

12:30 ILUNBE ORKESTA
SINFONIKOAREN
KONTZERTUA
Herriko Antzokian
Antolatzailea:

1. Bereziartua Musikeskola

16:30 ZINEA
"Las desventuras de
Beav er"

19:30-22:15 ZINEA
"Tienes un e-mail"

2 astelehena

19:00 ELGOIBARKO
IZARRAKO
BAZKIDEEN URTEKO
BATZAR OROKORRA
Kultur Etxeko hitzaldi gelan

22:15 ZINEA
"Tienes un e-mail"

30 asteartea

19:30 IÑURRATEGI
ANAIEN
IKUSENTZUNEZKOA
Antolatzailea:
Morkaiko M. E.
Herriko Antzokian

2G ostirala

20:00 KONTZENTRAZIO
IXILA

Lema:
"Bakea eraikitzen Enskcd
Herriak du hitza"

Antolatzaileak:
Lizarra-Garazi Akordioaren
sinatzaileak (HB, PNV, EA
eta IU/EB).
Plaza Handian

22:00 KONTZERTUA
Iheitzia (Lakuntza-Nafarroa)
Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
"Gato negro, gato blanco"

27 larunbata

12:00 ZAZPIKI
IRRATIAREN
BATZARRA
Ganbaran

17:30 UDABERRI JAIA
Plaza Handian
Antolatzailea:
Atxutxiamaika B.T.

19:30-22:15 ZINEA
"Tienes un e-mail"

22:30 KULTUR ERROTA
(6. EMANALDIA)

Partehartzaileak:
Thaki Scdvador &
'Kirikoketa' taldea eta
Mai Goro.sticzgaren
monologoa
Kultur Etxeko Sotoan
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra

• Udaberri Jaia antolatu du Atxutxiamaikak

Bihar, zapatua (hilak 27), Atxutxiamaika Begirale Taldekoek hainbat ekintza antolatu dituzte udaberriari ongi-etorria emateko. Haur guztiak Plaza Hancian egingo diren jolasetara gonbidatuak daude, arratsaldeko 17:30ean. Afarria 20:30ean izango da eta bakoitzak berea eraman beharko du. Iluntzeko 21:00etan trikitalariek dantzaldia izango da, eta gaueko 22:00etan eman go zaio amaiera Udaberri Jaia.

11 21BMIE

FARMAZIAK

Egunez Gauez

27 Bidasolo Bidasolo

28 Bidasolo Bidasolo

29 Etxeberria Etxeberria

(Santa Ana kalean)

30 Anduaga Anduaga

31 Yudego Yudego

1 Bidasolo Bidasolo

2 Bidasolo Bidasolo

3 Bidasolo* Zabaleta

4 Zabaleta Zabaleta

5 Zabaleta Zabaleta

6 Etxeberria Etxeberria

(Santa Ana kalean)

7 Anduaga Anduaga

8 Yudego Yudego

9 Zabaleta Zabaleta

(teguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabat, 1

Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kaiebarren, 9

Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

28 igandea Idarraga

1 osleguna Zabaleta

2 ostirala Doña Mercedes

4 igandea Ezizagirre

5 astelehena Fotere

• Pasaiaiko Ilunbe Orkesta Sinfonikoaren kontzertua


igandean, hilak 28, Pasaiaiko Ilunbe Orkesta Sinfonikoaren kontzertua izango da eguerdiko 12:30ean Herriko Antzokian. Inazio Bereziartua Musikeskolak Elgoibarko Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzaz antolatutako kontzertua da. Ilunbe Orkesta 50 musikaririk osatzen dute eta beraien erreperitorioak garai askotako musikariren lanak jasotzen ditu. Joseba Garmendiak zuzenduta, hauek dira joko dituzten piezak: *Air* (Handel), *Minuet and Trio* (Haydn), *Kaiser-walzer* (Strauss), *The Best of Billy Joel eta Rosamunde* (Schubert), *Ballet from 'Petite Suite'* (Debussy), *Grand March from Aida* (Verdi), *Themes from 007* (James Bond agenteari buruzko filmen doinua).

• Kilimon bailarara irteera antolatu du Herri Eskolak

Iganderako, hilak 28, Kilimongo bailarara mendi irteera antolatu dute Herri Eskolako gurasoek. Lineako autobusean aterako dira goizeko 9:20ean eta Mendarotik Kilimonera abiatuko dira. **Euskal Eskola Publikoaren kamisetak salgai** Bestalde, Euskal Eskola Publikoaren kamisetak salgai jarriko dituzte gaur, hilak 26, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eta larunbatean goizeko 11:00etatik eguerdiko 1:30era King Kongen.

• Martxoaren 28an, ordu aldaketa

Udaberriaren etorrerarekin ordularien orratzak aldatu egin ohi dira. Aldaketa, domekan, hilak 28, egin beharko da erlojuak ordubete aurreratuz. Beraz, goizaldeko 02:00ak direnean ordularia 03:00etan jarri beharko da.



• EskazTaideak antolatutako hirziklala eta errestitazio ikastaroa

Apiril eta maiatz bitartean, altzariak birziklatzeko eta zaharberritzeko ikastaroa izango da Pedro Muguruza-ko ikastetxeko lokaletan *Eskuz* Taldeak antolatuta. Hiru zati izango ditu ikastaroak. Lehen zatian altzarien garbiketa egiten irakatsiko dute. Bigarren zatian zurgintza landuko da, eta azkenik, altzarien akabera irakatsiko du Nieves Maidagan errestitatzaileak. Izena emateko 943 74 14 49 telefonora deitu eguerdiko 13:00etatik 15:00etara bitartean.

• Elgoibarko Filatelia Elkartearen Urteko Batzar Orokorra

Datorren igandean, hilak 28, Batzar Orokorra egingo dute Filatelia Elkartekok. Batzarra 11:45ean hasiko da Merkatu Plazako egoitzan. Urteko kuota ordaindu gabe duten bazkideek goizeko 10:00etatik aurrera izango dute zorrak ordaintzeko aukera. Batzarraren ostean, berriz, materiala zozketatuko da agertzen diren bazkideen artean.

NE A



~1.1111.

Zuzendaria: Nora Ephron.
Antzezleak: Tom Hanks, Meg Ryan,
Greg Kinnear.

Tienes un e-mail

Internet-i esker maitemintzen den bikote baten istorioa kontatzen digu komedia honek. Kathleen liburudenda txiki bateko jabea da eta Joe, berriz, liburnak oso merke saltzen dituen denda handi bateko jabearen semea. Negozio kontuetako konpetentzia dela-eta, bien arteko harremana ez da batere ona. Internet-en bidez euren hatremana sendotzen joango da, eta azkenean, bi protagonistak maitemindu egiten dira.

ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK								
	Hilak 28 Erramu Igandoa	Hilak 29 Astelehena	Hilak 30 Asteartea	Hilak 31 Asteazkena	Hilak 1 Ostegun Santua	Hilak 2 Ostiral Santua	Hilak 3 Larunbata	Hilak 4 Pazko Igandoa
PARROKIAN	11:00 prozesioa, bedeinkazioa eta meza 12:30 Meza	16:30/20:00 Aitortzak (Euskaraz)	16:30/20:00 Aitortzak (Gaztelan az)		10:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	17:30 Jesusen Heriotzaren elizkizuna 20:30 Gurutz Bidea	21:00 Pazko Bijilia	11:00 Meza nagusia eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak
SANTA KLARAN	9:30 Bedeinkazioa eta meza				17:30 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurreko otoitza	9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz Bidea 17:00 Jesusen Heriotzaren ospakizuna	22:00 Pazko Bijilia	9:30 Meza
MADALAN	8:30/12:30 Bedeinkazioa eta meza	20:00 Aitortzak (Euskaraz)	20:00 Aitortzak (Gaztelaniaz)		19:30 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	10:00 Gurutz Bidea 17:30 Jesusen Heriotzaren ospakizuna	20:30 Pazko Bijilia	8:30/12:30 Mezak
SAN LORENTZON				20:00 Aitortzak 21:00 (San Antolin) Aitortzak	18:00 Azken afariko ospakizuna	19:00 Jesusen Heriotzaren ospakizuna		

• Elgoiharko Izarra Elkartearen Bazkijdeen Batzar Orokorra

Datorren astelehenean, **hilak 29**, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Bazkideen Urteko Batzar Orokorra egingo du honako gai ordenarekin: Iehendakariaren agurra, 98ko memoria, 99ko asmoak eta aurrekontuak, Toletxe Kafe-Antzokiaren proiektua eta galde-erantzun saioa. Batzarra arratsaldeko 19:00etan hasiko da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

• Iñurrategi anaien "Kordadako lagun galdna" ikusentzunezkoa

Felix eta Alberto Iñurrategi mendigoizaleek 'Kordadako lagun galdna' izeneko ikusentzunezkoa eskainiko dute asteartean, hilak 30, Herriko Antzokian. Morkaiko Mendizale Elkarteak antolaturiko saioa izango da eta ikusentzunezkoan Murrategi anaiek Manaslu, Dhaulagiri eta Jala Peri rrendietara egindako espedizioetako diapositibak erakutsiko dituzte. Era beran, bizitako esperientziak eta sentsazioak kontatuko dizkigute. Ikusentzunezkoa arratsaldeko 19:30ean hasiko da.



■ ■ ■ ■ IR IR • ER E R ■ RI • • • IR ■ R • ER • • 1 • 1 ■
III • ■ • •

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Todd Hynes.
Antzezleak: Jonathan Meyers, Evan MaeGregor, Christian Bale.

Velvet Goldmine

70. hamarkadako 'Glam rock' izeneko musika mugimendua omentzen du pelikula honek. Brian Slade glam mugimenduko izarra da. Behin, kontzertua ematen dagoela, hil egiten da. 10 urte beranduago, kazetari batek abeslariaren bizitza pribatua ikeretzea erabakitzen du. Horretarako abeslariarekin zerikusiren bat izan zuten hainbat pertsonarekin berba egiten du: bere alarguna, managenu eta musika arloan lehiakidea izan zen Amerikako rock abeslari bat.

ONGAILURIFEN OHARRA:

Aste Santuko oporrak direla-eta, apirilaren 1ean, osteguna, ez da zine klub saiorik izango. Hurrengo pelikula apirilaren 8an eta 9an emango dugu. Era berean, gogoratu nahi dizuegu apirilera ziklo interesgarria prestatzen ari garela herriko talde batekin elkarlanean.

■ ■ ■ ■ ZNIZEZ • • • • 111111 111 • • • • • 1 1 1
ERRE • • • •

OHARRA:
Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna aste-azken eguerdia da.

Lana

• **ESKAINZA***

- Emakumea zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. s 943 19 24 31
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. ir 943 74 20 32 (arratsaldeko 19:30etik aurrera)
- Elgoibarren etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Ts. 943 74 38 36 (goizez)

• **ESKAERA•**

- Neska gazte arduratsua eskaintzen da Aste Santuan, apirilaren letik 15era, umeak zaindu edo dendaren batean lan egiteko. tr 943 74 33 42.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko. tr 943 74 41 70
- Esperientziadun emakumea eskaintzen da gaixoak zaintzeko. Tr 943 74 04 86 (Victoria edo Rosa)
- Etxea garbitu edo umeak zaintzeko emakumea eskaintzen da. ir 943 74 34 06
- Emakume brasildarra eskaintzen da umeakzaintzeko edo etxeko lanetarako. 10:00etatik 16:00etara. (Cristiane) te 943 74 07 07/74 08 81
- Agureak, gaixoak, etab. zaintzeko prest nago. Arratsaldez edo gauez. Esperientziarekin. 72 630 20 97 31
- Neska eskaintzen da. Arduratsua eta esperientziarekin etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. ir 610 68 52 95
- 4 Magisteritza ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko Elgoibarren edo Mendaron. Orduetgia hitz egitekotan. 5 943 74 20 94 (Yolanda)
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. s 943 75 62 57
- Etxeko lanak egin edo lokatak, dendak eta portalak garbituko nituzke. Esperientzia eta informeak ditut. is 943 74 38 45 (Matilde. Erantzungailuan laga mezua)
- Ostalaritzan, umezaintzan eta garbiketean esperientziadun neska eskaintzen da. 73 943 74 22 03/943 74 07 07

Bestelakoak

- Liburutegian "Contagio" liburua- ren barruan 2 argazki zahar eta bere negatiboak aurkitu ditugu. Argazkiak Lehen.faunartzekoak dim. Jabeak Li- bunttegia izango ditu argazkiak.
- San Migelgo frontoian gizonetz- ko erlojua aurkitu dut.. tr 943 74 21 40
- Narruzko guante mamjiak gal- du ditut. 943 74 04 63
- Sukaldeko tnahai biribila eta garbigailua saltzen ditut. Merke- merke.a. 943 74 22 20
- Taherna hartuko nuke en'entan. -rs 943 75 10 16 (Mertxe edo Jesus)
- Caritasek 2 kotxesila behar ditu. Baita jaioherriarentzako kapazoa edo otarra, butanozko estufa eta labadora bat ere. s 943 74 15 09
- Jubilazioarengatik. martxun da- goen negozioa traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezioa hitz egi- tekotan (aukera ona). 73 943 74 02 27 Celsa

Etxebizitzak

- Errosario kalean etxebizitza sal- gai ganbareekin. 3. pisua, plaza aurrean. tr 943 74 17 95
- Etxebizitza polita salgai. Altzariekin eta guztiz berritua. Bernar- do Ezenarro 1, okindegi gainean. •r 943 74 17 95
- Pisu txikia alokatzen dut. Erro- sario, 9-1.ezk. •zr 943 74 09 74 (Dolores)
- Lokal bat alokatu nahi genuke. 20.000 pta. ordaintzeko prest gau- de lokalaren arabera. ir 943 74 35 68 (Abraham).
- ♦ Ganbara bat alokatu nald nuke. Gehienez 30.000 pta, ordaintzeko prest nago. s 943 20 01 01
- Pisu alokatzen da Erretxindin. Altzariekin. ur 943 74 33 06
- Etxebizitza saltzen da Errosario kalean. tr 943 74 17 95
- Pisu edo buhardila bat hartuko nuke alokaiman. u. 943 74 31 75
- Etxea saltzen da Santa Ana ka- lean. 2. pisua da, ganhara eta igo- gailuarekin. •ft 943 74 03 83 943 74 18 34
- Kanpora ematen duen pisua sal- tzen dut. Eguzkitsua. Lau logela, sukaldea, saloi-jangela, bi bainu- gela eta patio-trasteroa. Oso han- dia da. Urasandin. a 943 74 14 54 (gauez, 22:00-00:00)
- Pisu saltzen da Mendaron, 76 m2 ditu.53 943 74 31 07

Agurrak

- Zorionak Mariniri, martxoaren I I n urteak bete zituelako. Maialen eta Inñigoren partez.
- Zorionak Manu Atorrasagasti- ri osoaren partez martxoaren 20an urteak bete zituelako.
- Zorionak **Lierniri**, asteartean, hilak 30, 10 urte beteko dituelako. Iratxeren partez, Zorionak haita ere 4. mailako guztien partez.
- Zorionak gure superlagun **Eñauti** larunbatean, hilak 27, 12 urte beteko dituelako. Elgoibarko lagun guztien partez. Aupa Erreal.
- Zorionak **Izaskun**, martxoaren 29an urteak beteko dituzulako. Ahizpa Daneleren partez.
- Zorionak **Juanito Gorostizari** aitxitxa izan delako. BARRENe- ko lantaldearen partez.



• Zorionak Mikel eta Ainhoa Uri- gueni urteak beteko dituztelako. Gurasoen eta familia osoaren par- tez. Zorionak baita ere amatxo Mariari familiaren partez.




• Zorionak Joana Marci- lla Plazari, asteartean, hilak 23, 3 urte bete zituelako. Fami- lia guztiaren partez.



• Zorionak **Izaskuni** hila- ren 23an urteak bete zituelako, familia osoaren partez eta hatez ere senar eta alaben partez.



• Zorionak **Iruneri** hila- ren 21ean 11 urte bete zituelako. Familia guztia- ren eta bereziki bere ahizpa Alaznere- n partez.



• Zorionak **Oieri** igunde- an, hilak 21, 2 urte beteko di- tuelako. Gura- soen eta bere lehengusina Saioaren partez.

• Zorionak Inñaki **Konderi**, hihar, hilak 27, 5 urte beteko dituelako. Fami- lia osoaren partez eta bere- ziki bere arreba Amaia- ren partez.



• Zorionak **Tridri** eta Pakiri hila- ren 23an eta 26an urteak bete zi- tuztelako. Familia osoaren partez.




• Zorionak Ma- rriar) hila- ren 24an 6 urte bete zituelako. Aran- txa, Ane eta Da- neleren partez.



• Zorionak Loli Freireri apirilaren lein urteak beteko dituelako. Alaba- ren eta sena- miren partez egun zoragarria pasa dezazula.




• Zorionak **Daneli** hila- ren 21ean urtebete egin zuelako. Familia guztia- ren partez.



• Zorionak Unai Ortuosteri hila- ren 30ean 4 urte beteko di- tuelako. Fami- lia guztiaren partez.



♦ Zorionak **Nahikariri** hila- ren 25ean 3 urte bete zitue- lako. Familia osoaren partez.



• Zorionak Leire Melgosari, gaur, hilak 26, 3 urte bete di- tuelako. Fami- liaren partez muxu bat.



• Zorionak Luisa Mfilleri Egoitz, senarra- ren eta familia- ren partez, gaur urteak bete di- tuelako.

Kultur Errota



[IÑA 151 SALVADOR

pianoa

[JEXUS ARTZE eta KIRIKOKETA taldea

Kalapartariak

PIANOA eta TXALAPARTA langun direla, Euskal musika tradizionalaren irakurketa librea egingo dute.

[11AI GOROSTIAGA]

monologoa

■ “Euskaldun berri baten bizipenak”

Salvador

Euskat Herriko jazz musikan ezinbesteko pianojolea eta musika sortzailea. Aipagarriak dira beste musikari ospetsu eta estilo ezberdinekoekin eginiko ibilbideak. Kultur Errotan bakarleri gisa arituko zaigu *Kirikoketa* txalaparta taldearekin.

Martxock 27, zapatua
Kultur Etxeko SOTOAN
Gaueko 22:30ean
Sarrera: 500 pta.




Elgoibarka Izarra K.E.



Elgoibarko Udala

BIZITZEKO ERA BERRIA



Residencial
Magdalena
Maala

Estilo berritzailea duen ingurua sortu nahi dugu. Gaur egungo bizitzeko erari konponbide berriak eta behin-betikoak eskaintzen dizkiogu. Apartamentuako 2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. Terraza zabaieko duplex-ako Etxebizitzak lorategiarekin. Garajeako Trastelekuak eta saltokietarako lokalak.



Argibideak eta salmenta: obran bertan



943 74 24 00

Sustatzailea:

**MENDIBIL
ELGORRIAGA,
A.I.E.**

Eraikitzailea:

411 ———
WAIEL
CONSTRUCLOWENABAKS.A.